



Antton Amonarriz kultur etxe berria inauguratu dute Larraulen

ZERBITZUAK ▶ Besteak beste, ludoteka eta liburutegia izango dira bertan; urtebetean eraiki dute kulturunea ▶ 4



Aurrekua dantzatu zieten dantzariak bertan bildu ziren agintariei. N.GARZIA

CARLOS PEÑA ▶ IGERILARIA ETA ABENTURAZALEA

«Herri Urratsen, lakuan igerian aritzea da nire helburuetako bat»

Tolosarrak Chiquita itsasoa zeharkatu eta Sellako jaitsiera egin berri ditu ▶ 6

TOLOSA ▶

**Etorrinek
euskaraz
ikasteko
ikastaroak**

Ereite elkarteak antolatu ditu dohainik; seme-alabentzat, berriz, ludoteka zerbitzua jarri dute ▶ 7



Seme-alaben ludoteka. E.M.

ASTEASU ▶

**Maidar Mendizabal
I. Emakumea Pilotari
Txapelketako finalean**

Maitane Aburuza zizurkildarrak ere irabazi zuen atzo, kadete mailan ▶ 5



Elbarrena Industrialdea

Tel.: 943 888 232 Zaldibia

Ordutegia: Astelehenetik larunbatara

10:00-13:00

16:00-20:00

www.jaiakdenda.com



TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

Zer nolako
Tolosa nahi
duzu 2015ean?

Tolosa 2015 proiektua zer den jakin beharko genuke aurrena, zer falta ez zer sobera duen esan ahal izateko. 2015 urruti ikusten dut nik behintzat oraindik, baina Tolosarre galdetuko bagenie proiektu hori zer den...zenbaterik eman-go luke tajuzko erantzunik?

JOXPIN ▶

Ez dut uste gutxi garenak baxteregi ez dugunak zer demontre den proiektu horren ardatz nagusia, beraz...

JOXI ▶

Zer aurkezten du 2015ak? barkatu baina ez dut irakurri atera bada behintzat. Baina ez

dut imaginatzen janariarekin lotu gabeko ospakizunik: odolkia, babarrunak, txuletoia... Tolosa eta kolesterola (beste zerbait asmatu, Jokin! Tolosak gastronomia ez den beste zer edo zer izango du)

->

Udalak beste behin ere bere aurpegia zuzitzeko erabili duen estrategia bat da. Herri-tarrei galdetu. Zertaz? Zertarako baliako dituzte erantzunik? Oso erraza da mahai gainean gai pila bat jartzea, gero politika sistemak irabazi behar badu. Nola lortu boto gehiago, alegia. Tolosa solidarioago bat nahi dut etorkinekin, eskuzabalagoa gazteekin (etxebizitzak), errespetu gehiago helduekin (Gerontologikoa)... Hasi hori hobetzen eta orduan hitz egingo dugu.

TOLOSAR BAT ▶

UZTURRETIK ▶ ANDU MARTINEZ DE RITUERTO

Urtarrileko aldapa



Urtarrileko aldapa bukatzeaz dago eta ezin itxaropenik azaldu. Egun, urte osoa bilakatu zaigu aldapa. Gure soldataren puska eder bat erabilia ere, biziaren erdia baino gehiago eman behar dugu etxebizitza ordaintzeko eta astuna izan arren hau ez da zama latzena; gure kontsumoaren gizarte maite honek harrapatuta gauzka bere hatzparretan. Lana egin dirua irabazteko eta dirua irabazi kontsumitzeko eta berriz ere katea hasi: lana, dirua, erosketa, lana... etenik gabe.

Indian hilabete batzu pasa dituen gazte tolosar batek halaxe esaten zidan hango bizipenei buruz galdetuta «ba, hangoa baino, harrigarriago egin zait gure bizimoduarekin berriz ere topo egitea, hemen patxadarik ez dugu, beti

presaka, beti lanpetuta, ezin iritsi; dena dugu eta gehiago nahi. Izan naizen herriko jendeak berriz, ezer gutxi du, bizitzeko lain, baina beste pake bat antzematen zaie, lasatasuna eta barne oreka handiagoz bizi dira».

Uda partean lagun batekin izandako solasaldia etorri zait gogora, gure Aiton-Amonek gu baino askoz ere hobeto bizi zirela zioen berak, goizetik gauera beharra besterik egin ez arren lasaia bizi eta zoriontsuagoak zirela. Nik berriz, ezetz, orain askoz ere erosgo bizi garela, lan ordu gutxiago egiten ditugula eta lana bera ere, orokorrean xamurragoa izaten dela, jatekorik ez zaigula falta, aisialdirako denbora gehiago dugula, osasun asistentzia...

Gazte tolosar horren Indiako herri txiki batean bizitakoaren gaineko hausnarketak eta udako gau epel hartan nire lagunak esandakoak nire iritzia zertxobait zehaztera eramaten nauten: hobeto bizi garela baino hobeto bizi gaitzkeela esango nuke. Norberaren baitan dago gako.

ARGAZKI ZAHARRA ▶

Plazaolako
trenak lehen
bidaia egin
zuela 93 urte
bete dira

Erredakzioa ▶ Herenegun Plazaola trenaren ofizialki inauguratu zela 93 urte egin zituen, 1914eko urtarrilaren 19an abiatu baitzen lehen aldiz. Egun hartatik aurrera eta 40 urtez jarraian Donostiatik Iruñera eta Iruñetik Donostiarako bidaia egunero-egunero egin zituen. 1953. urteko uholde eta autobusen lehiaren ondorioz bertan behera utzi zuten arte. 40 urte horietan ez zen soilik merkataritzarako eta komunikaziorako bidea izan, trenaren joan-etorriekin batera kulturaren hartu emanak ere aunitzak izan ziren. Argazkian, trenaren irudi bat. HITZA

hilberria ▶

Miguel Anton Beloki Rekalde

JAUNA
(Josefa Joakina Zabalaaren alarguna)
ATZO hil zen, 89 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Golan bego-



Bere seme-alabak: Carlos eta Begoña, Conchi eta Tomas, Pili eta Jose Mari, Jose Ramon eta Nekane, Juli eta Ignacio, Basilio eta Maria Jose, Antonio, M^a Jesus eta Juanito, Felix eta Leire; bilobak: Igor eta Amaia, Agurtzane eta Joseba, Ainhoa eta Jose Mari, Amaia eta Xabier, Jon eta Leire, Aitor eta Itxaso, Leire, Xabier, Ainhoa, Naiara eta Gaizka, Ibai, Inaki eta Jaione, Aitziber, Ander, Mikel, Maitane, Julen, Aiora eta Oier; birlobak: Beñat eta Irati; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otobit bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitzela GAUR IGANDEA, arratsaldeko 17:00etan, Bedaiko ANDRE MARIAREN JAIOKUNDEA elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Zuzenbidea ▶ Ilorreta Baserna
Oharra ▶ Gorputz beila Vascogarda
Tolosaldeko beltzean dago. Errosario
Santua izango da 16:45ean elizan.

BEDAION, 2007ko URTARRILAREN 21ean

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

GUTUN@K ▶

Erantzuteko eskubidea

Udaleko, denon etxeko, azken osoko bilkuran adierazi ziren hainbat azalpen okerrei eta zenbaitetan gezurrei erantzuteko aukera ez zigutenez eman, bertan aurkeztu genituen zenbait argudio argitzea eta nabarmentzea erabaki dugu; izan ere, gure jarrera ez zen «isilik dagoenak, baietz esaten du» izan, «isilarazi dituztenak, baietz esaten dute» baizik.

Osoko bilkuran zenbait alderditako ordezkariak esaten zutena ez dela egia adierazi nahi genuen, 8 hile lehenagoko gaiari buruzko mahai inguruan gainerako alderdi politikoei egin zuten bezala: «gerontologikoa ixteko erabakia (2005eko martxoan) Foru Al-

dundiarena izan zen, eta ez ziguten jakinarazi, eta, gainera, erabaki horretan ez genuen parterik hartu». Mahai inguruaren ondoren prentsara bidali genuen balorazioan adierazpen hauen inguruko zalantzak azaldu genituen, ezin zitekeelako sinetsi Foru Aldundiak beharrezko gerontologikoa ixtea erabaki zuenik eta Udalarai ez zion jakinarazi, are gehiago biak alderdi berekoak izaki (EAJ). Orain, argitu nahi dugu Gizarte Ongizate diputatuak Batzordeko Aralar taldeari bere sailak 2003. urtetik Tolosako Udalararekin hainbat bilera izan zituela jakinarazteko emandako dokumentazio ofiziala dugula. Biler horiek herritarrei, egoiliarren senitartekoei, langileei eta, itxura denez, gai nontzeko alderdi politikoei ezkutatu zaizkie. Hau da, infor-

mazioa ezkutatu eta gezurra esan ziguten ezer ez zekitela baieztatu zigutenean. Ondorioz, herritarrek ez ginen ohartu gure altxorra lapurtu behar zigutenik, eta lapurreta saihesteko ezin izan genuen defentsa egokirik prestatu, Eibarko Udalak egin zuten moduan. Osoko bilkuran esan genuen bezala, zeren truke saldu diguzue hirigunean zegoen kalitatezko gerontologiko publikoa?

Euskal Herria plazako Gerontologikoa ixtea saihesteko ez zuten ezer egin, aurkakoa baizik; gainera, alderdi politikoei aurkeztutako mozioan adierazitakoa ez da egia, hau da, Udala berehala jarri zela lanean konponbide on baten bila. Herriko Hitza egunkariaren hemerroteka erabiliz osoko bilkuran ziurtatu genuen bezala, egoiliarren senitarte-

koek pertsona horiek maleta gisa tratatzeari uko egin ziotelako hasi zen Udala mugitzen. Ondoren, alkateak zenbait adierazpen egin zituen diputatuarekin batera arazoari konponbidea aurkitu ziotela eta pozik zegoela esanez. Plataformak eta alderdiek lanmahaia eratu zuten 2006ko urtarrilean. EAJk parte ez hartzea erabaki zuen. Ordura arte Plataformaren izen ona gaitzetsi baino ez zuten egin, eta dirudienez, 2006ko otsailean Udaleko Gizarte Ongizateko Sailak Plataformak emandako datuak ziurtatzen zituen txostena argitaratu zuen arte ez zen egoeraz jabetu. Gerontologikoa itxi behar zutela jakinarazi zutenetik urtebete baino gehiago igaro zen.

MANU LEUNDA ▶
GERONTOLOGIKOAREN ALDEKO PLATAFORMA (TOLOSA)

ESANA ▶



OIHANE PEREZ
EUSKADI IRRATIKO KAZETARIA

«Madriren euskaz lan egitea Gasteizen baino errazagoa dela konturatu naiz hemen nagoenetik»

«Justizia eta politika lanak egiten ditut batik bat; inoiz ez dakit noiz hasi eta amaituko den eguna»

«Orain ezjakintasuna eta zalantza dago; Zapaterorengan konfiantza galdu du jendeak»

Berria (2007/01/20)

DATUA ▶

25

Egun. Geratzen dira 2007ko Ostegun Gizen egunerako. Inauterietarako atzerako kontaketa hasi da, beraz. Aisialdi talde askok ekin diete euren entseguiei eta karrozak eta konpartsak ere hasi dira motorrak berotzen. Irudimena lantzeko garaia da orain. 25 egun barru, berriz, irudimenak emandakoaren emaitzak ikusteko garaia izango da. Eta nola ez, eromenarena.

IRITZIA ▶ ANE MIREN URANGA (DIETISTA)

Gabonetako gehiegikerien ostean...

U rte berriko merkealdiekin batera, asmo on ugari izan ohi ditugu; hauen artean osasunarekin zerikusi zuzena duena: Eguberrietako otordu oparo horien ondorioz itsatsi zaizkigun kiloak lehen bait lehen gainetik kentzea.

Eguberrietako jaietan ohikoa baino gehiago jan ohi dugu familia eta lagunekin egin ohi ditugun otorduetan eta Gabonak amaitzearekin batera, udaberrian bainujantzia probatzean gertatzen zaiguna sentitzen dugu; behar baino gehiago jan dugunez eta ariketa fisikoa neurri berean gehitu ez dugunez pare bat kilo gorputzen gelditu zaizkigu. Horretarako ohiko bihurtu zaizkigun bi erremedio ditugu aukeran, bat argaltzeko dieta miresgarrien bat hasi edota gimnasio bateren batean izena ematea ere. Gizarte zoro honetan kontraesan galantak ditugu, Gabonetan dirutza bat gastatu dugu janariak erosten—data hauetan bakarrik jango bagenu bezala—eta hara orain berriro ordaintzera goaz argaltzeko produktu berria erosteko edota gimnasioan sarrera kuota ordaintzeko. Gure gorputzak diru hau guztia baino askoz gehiago balio duen



zerbait dugu, gorputza kanpoko itxurara ez baita mugatzen, beraz kezka gehiago sortu behar digu gehiegikeria hauek osasunarengan duten ondorioetan.

Janariak, gorputzaren behar nutrizio-

OSASUNAREN GARRANTZIA

«Gorputza ez da kanpoko itxurara mugatzen; gehiegikeriek osasunarengan duten ondorioek kezka sortu behar digute»

nalak asetzeaz gain, giro atseginean egiten diren otorduak, bai familian edota lagunekin, alde ludiko garrantzitsua dute; besteekin erlaxatzeke primerako aitzakia dira. Honen adibide dugu edozein ospakizun mahai baten inguruan ospatu ohi dugula, ohitura hau oso ona eta beharrezkoa dugu baino izan gaitezen zentzudunak jatera esertzen garen bakoitzean, ez dezagun hurrengo egunerako hutzi dieta egitea. Otordu batean ohikoa baino gehiago jateagatik ez da ezer gertatzen baino saia gaitezen ondorengo otorduetan aholku nutrizionalak jarraitzen eta horrela festak amaitu ondoren ez gara gaizki sentituko. Orokorrean gabonetako otorduetan proteina eta azukre ugari duten janariak kontsumitu ohi ditugu, gorputzean hondakin ugari sortuz eta ondorioz kolesterol, glukosa eta azido uriko kopurua odolean igo ohi dira. Azkenik esan, ariketa fisikoa maiztasun batekin eginezgero, gorputzaren pisu egokia lortzeaz gain, proteina kopurua haundituko dugue, koipeak gutxituz eta orokorrean gorputzaren ereka nabarmen hobetuko dugu.

hitza

Harpidedunen txokoa

Egin zaitetz harpidedun!

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*eko BEHERAPENA izango duzue EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beharapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAren harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

▶ DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

honetekin
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

MUGAR
Nafarroa etorb, 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

LARRAUL ▶ KULTURA

NAIARA GARZIA

Antton Amonarriz kulturgunea atzo inauguratu zuten. Urtebete eskasean egin dute obra eta inaugurazioko festan Jon Urkaregi herriko alkateak hitzaldi bat eman zuen, baita Gonzalo Saez de Samaniegok ere, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak.

12:00etan hasi zen Antton Amonarriz kulturgunearen inaugurazioa eta jende ugari bildu zen ekitaldia ikustera. Jon Urkaregi, herriko alkatearen hitzekin eman zitzaion hasiera. Ekitaldi honetara ere politikari batzuk joan ziren, lehen aipatutako Gonzalo Saez de Samaniego, Juan Karlos Zuloaga, Eusko Jaurlaritzako Landa Garapen sailekoa, eta Rafa Urbarren Foru Aldundiko Landa Garapen sailekoa. Lehenengo zati hau amaitu ondoren, Jesus Mari Irazuk bi bertso ederra bota zituen. Dantzariak eta txistularia ere hantxe ziren eta kulturguneari ongiatorria emateko Aurrekoa dantzatu zuten.

Antton Amonarriz Larraulgo alkatea izan zen urte askotan eta bapatean hil zen. Herriko kulturguneak bere izena darma-kienez, omenalditxo bat egin zieten bere senitartekoei, lore sorta bat eskainiz. Ana Irastorzak, bere lagunak, azaldu zuten, «gaur egun dugun alkatea etxera etorri zen, ea senarra zenaren izena kulturguneari jartzea ondo iruditzen zitzaigun jakiteko eta ea onartzen genuen. Oso pozgarria da niretzat».

Ekitaldi ofiziala eta gero luntxa egin zuten kulturgunean bertan eta horretarako Goizargi tabernatik jaki ugari eraman zituzten: tortilla, kroketak, txistorra, urdaiazpikoa...

Oihane Ariznabarretak, kulturailariek zuzendutako, kulturailariek zuzendutako, kulturailariek zuzendutako...

Antton Amonarriz kulturgune berria inauguratu dute

Ludoteka eta liburutegiaz gain, herritarrentzako zerbitzu ugari eskaintzea da kulturgunearen helburua



Antton Amonarriz kultur etxe berriak herriko aurreko alkatearen izena darma. N. GARZIA

duenez, hasiera batean inaugurazioa abenduan egin behar zuten arren, azkenean atzeratzea erabaki zuten. «Abenduaren amaieran egin behar zuten, baina atzeratu egin zen bukatu gabe zegoelako. Gaur inauguratu dugun arren, oraindik detaile asko daude egiteko». Be-

hean ludoteka jartzeko asmoa dute, baina gauzak oraindik udaletxean daude. «Gabonetan deialdia egin zen jolasak jasotzeko eta arrakasta handia izan genuen». Jolas hauek guztiak ludotekarako izanen dira, eta oraindik deialdia zabalik dago. «Ludotekak ez du begiralerik izanen, gurasoek arduratu beharko dute. Herritarrei bizitza eman nahi diegu baina horretarako jendearen erantzuna behar da», dio Oihane Ariznabarretak.

Jendearen erantzuna

Ildo honetatik jarraituz, jendearen inplikazioa azpimarratu du Oihane Ariznabarretak, kulturgune honen funtsa hori dela azpimarratuz. «Guk zerbitzu bat ematen diegu, baina jendeak ere bere aldetik jarri behar du. Herrian kultura zabaldu behar dugu, baina horretarako herriaren inplikazioa ezinbestekoa da». Herriko alkateak ere, Jon Urkaregi, ideia bera azpimarratu zuen. «Jendearen jarrera oso ona izan da, baina azkenean aurrera jarraitzea denon esku dago». Gainera,

azkeneko urtean biztanle kopuruak nabarmen egin du gora, aurreko urtean 160 baziren, aurten 211 dira. «37 etxe berri egin dira bapatean, eta kanpotik etorri den jendeak bere denbora beharko du herrian integratzeko, baina kulturguneak honetan lagun dezakeela uste dut», dio Jon Urkaregi.

Lehenago udaletxean ematen ziren ikastaroak orain kulturgunean emango dira: pintura, antzerkia eta meditazioa. Honetaz gain, Oihane Ariznabarretak adierazi duen bezala, «eskaintza zabaldu egingo da». Honetaz gain, kirola normalean kanpoan egiten duten arren, «eguraldi txarra egiten duenean barrura sartuko dira».

Liburutegiari dagokionez, bere toki aldaketa azkenekoa izango da. «Udaletxean dauden liburu guztiak ekarriko ditugu, eta trasladio txukun egin nahi dugu». Kulturguneak paisaia ez duela eraginik azpimarratu du Oihane Ariznabarretak. Barrutik, berriz, gela bakoitza kolore batekin marraztu dute.

AZOKA ▶

Jendea lasai eta goiz ibili da azokan, ikusmiran

Aurtengo hirinaren goiera dela-eta artisau ogiaren prezioa aldatu egin da

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna erritmo lasaian ospatu zen Tolosan. Bisitarien etorrera goizko orduetatik eman zen, eta nahiz eta erritmo lasaian, etengabeko etorrera izan zen. Goiza polita izan zen, eguraldi ona eta bisitariak.

Eskaintza ere ez zen makala izan, eta postu batzuetan berrikuntzak ere izan ziren. Aurtengo lehenengo arbiak ikusi genituen barazki postuetan, eta fruta zerrenda, nahiz eta berdina izan, datorren asterako aldatuko da lehenengo mendiola eta udare sagarrek.

Atari kalean ere oso eskaintza zabala ikusi genuen arbolon postuetan. Frutarbola asko, eta baso espezieek ere salgai.

Artisau ogiaren postuan prezioak aldatu egin ziren hirinaren goierarekin.

AZOKA ▶

Prezioak	merk.	gares.
Berdura plaza		
Azalea	5,00	8,00
Erromeroa	4,00	6,00
Xarabota	4,00	6,00
Txinar krabelina	2,50	-
Pensamientoa	1,00	-
Zikiamera	5,50	-
Salbia	1,00	1,20

Bertako produktak		
Mizpiradia	3,00	-
Errezil sagarra	0,60	8,00
Inbaurra	2,50	4,00
Kalabaza	1,50	3,00
Erremolabxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Txikoria	1,00	1,25
Trebisoa	0,90	-
Gardua	3,00	-
Arraultzak	1,30	2,10
Artisau ogia	2,80	3,70
Ardi gazta	14,00	18,00

Produktu ekologikoak		
Kalabaza	1,60	3,04
Azenarioa	2,00	2,50
Arroz	1,90	2,00
Arbi morea	4,00	-
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00
Mermelada	3,00	3,60
Baraburia	1,60	6,00



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Tolosako Udalak, UDALTZAIN LAGUNTZAILEAK kontratatzeko asmoa du lilauterietarako (nagusiki lanbata, igandea, astelehena eta asteartea).

BETEBEHARRAK:

- 18 urte beteta izatea.
- Escola graduatua, lehen mailako lanbide heziketa edo balioidea den ikasketa titulua edukitzea.
- Lanpostuaren eginbeharrak betetzeko arazo psikiko edo fisikorik ez edukitzea.
- Euskara jakitea, lanpostuaren eginkizunak zuzen betetzeko beharrezkoa den mailan.

Baldintza hau egiaztatzeko, bidezko den azterketa egingo zaie izangaietara, Tolosako Udaletxean, 2007ko otsailaren 2an, goizeko 9etan.

BALORATUKO DIRA:

- Tolosan enpardonatuta egotea.
- Lanpostuaren eginbeharrak zerikusia duten ikastaroak.
- Lamiakido edo Babes Zibileko zerbitzuetan esperientzia izatea.
- Kirol gertaera, ikusizun publiko edo konzentrazio handietako antolamenduan parte hartu izana.
- Beste edozein lan esperientzia lanpostuarekin erlazioa duena

Interesaturik dagoenak Tolosako Udaletzeko Informazioa eta Erregistroan aurkituko du eskaera egiteko orria (Plaza Zaharra 6-A), Eskaerak 2007ko urtarrilaren 31ko 13:00ak baino lehen aurkeztu behar dira. Eskaerarekin batera aurkeztu behar dituen betebeharrak a) eta b) aparatuetako agiriaren fotokopiatu (NANA eta titulua), eta eskaeran jartzen dituen balorakizunenak.

Tolosan, 2007ko urtarrilaren 16an
ALKATEA
JOKIN BILDARRAZT SORRON

ASTEASU ▶ I. EMAKUMEA PILOTARI TXAPELKETA

Emakumeen arteko pilota, aurrera

Maider Mendizabal anoetarra, Nagore Arozena lizartarra eta Maitane Aburuza zizurkildarra finalean dira

NAIARA GARZIA

Asteasuko pilotalekuan I. Emakumea Pilotari Txapelketako finalerdiak jokatu ziren atzo arratsaldean. Maidar Mendizabal anoetarra honetan aritu zen Eluska Arrondorekin batera: 30-20 irabazi zuten Miren Zabala eta Edurne Argainen aurka, eta finalean Garazi Jaurregi eta Nagore Arozena lizartarrarekin jokatuko dute. Beraz, finalean eskualdeko bi jokalarizango dira, elkarren aurka. Datorren larunbatean jokatuko dute finala Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan.

Uste baino ikusle gehiago hurbildu zen Asteasuko finalerdiak ikustera: «Ziurrenik batzuk lehenengo aldiz ikusi dute horrelako partida bat, hau da, nesken arteko pala txapelketa bat. Inpresio ona jasoko zutela pentsatzen dut», Maidar Mendizabalen ustez. Lehiaketari maila handiago bat emateko asmoz bikoteak osatzeko orduan pilota eskola ezberdinetako lagunak nahastea erabaki zuten. Hori dela eta, atzoko partidaren eskualde eta eskola ezberdinetako jokalariek ikusteko aukera izan zen.

Lehenengo kadete mailako bi pilota partidei dagokionez, «politik izan dira, luzeak eta lau pilotariek lan handia egin dute. Tanto politik ikusi dira. Erritmoa mantxoxeagoa izan da, maila honetan ohikoa denez, baina oso ondo jokatu dute». Hernani 4 taldeko bikoteak Hernani 3ren aurka 30-22 irabazi zuen. Bigarren partidari, Hernani 1 eta Hernani

2ren artean jokatuakoa, lehenengoak gailendu ziren, 30-17 emaitzarekin.

Azkeneko partida nagusien mailakoa izan zen. «Galtzen hasi gara; 15 tantora arte, nahiko parekatua izan da partida. Gero alde hartu dugu eta mantendu egin dugu, partida irabazi arte».

Maidar Mendizabal, finalean egoteaz gain, lehiaketaren koordinatzailea da: Gipuzkoako Pilota Federazioan teknikari bezala egiten du lan. Txapelketaren azken jardunaldia ez zuen jokatu lesio batengatik. Baina, esan bezala, hurrengo larunbatean finalean izango da. Emakumea Pilotari Txapelketaren finalaz gain, Gipuzkoako kadete txapelketa-Kutxa Saria jokatu dute.

Proiektu zabala

Emakumea Pilotari Txapelketaren helburua ez da norgehiagoka hutsa: proiektua lehiaketatik haruntzago doa. «Proiektuaren barruan hiru arlo daude; batetik, partaidetza kirola bezala ezagutzen dena, 25 urte baino gehiagoko emakumeengan pilota kirol bezala eskaintzea da». Tolosan eta Azpeitian dagoeneko ikastaro hauek abian dira.

Bigarren arloa 10-16 urte bitarteko neskei dagokie: «Pilota eskolak antolatu ditugu; honen helburua eskolarteko txapelketak egitea da». Azkenik, emakume pilotari federatuen arloaren barruan, I. Emakumea Pilotari Txapelketa antolatu dute.



Nagusien mailako finalerdiko partidari, Maidar Mendizabal pilota itzultzen. N. GARZIA

Betiko janaria beste modu batera

eta erraz prestatzeko



liburua
DOAN!



Otsailak 3, larunbata,
kartilla + 1. kupoia

berriarekin



Babeslea



Lizartarra eta Aiztondo

1. ZURE KARTILLA ESKURATU

Otsailaren 3tik aurrera, egunero kupoia argitaratuko dira BERRIAN, guztira 14.

2. KUPOIAK ITSATSU

3. KARTILLA OSATZEAN, KIOSKORA ERAMAN
eta DOAN jasoko duzu liburua.

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Neska euskalduna eskaintzen da zerbitzari lanetarako. Eguerditan, astelehenetik ostiralera arte. Deitu 695 75 70 45 telefono zenbakira.

Garbitzaileak. Bi neska eskaintzen dira garbiketara orokorrak egiteko: sukaldeak, jatebeak, bulegoak... Eskarmentu handikoak. 943 68 30 57 eta 657 719 617.

Zerbitzaria. Neska euskalduna behar da tabernarako. Goizeko zazpietatik eguerdiko ordubata eta erdia arte. Igandeak jai. 650 48 79 34.

Zerbitzaria. Pertsona bat behar da

Tolosako taberna batean lan egiteko. 615 78 90 06.

Gidaria. Egurretan ibiltzeko boferra behar da. 626 71 46 96.

Gitarra-jolea. Erromeri talde batek gitarrak-jolea behar du. Interesatuak deitu: 665 70 17 75.

Langileak. Langileak eskoletarako, udaletarako. 943 444866.

Harreragileak eta laguntzaileak. Harreragileak, laguntzaileak, erakunde publikoetarako. 943 444866.

BESTEAK

Soinekoa. Jaunartzeko soinekoa erosiko nuke. 652 72 04 62.

CARLOS PEÑA ▶ IGERILARIA

«Ziurrenik berriz saiatuko banintz ez nuke lortuko, oso gogorra izan da»

Chiquita itsasoa zeharkatu eta Sella ibaiaren jaitsieran zuen errekorra hautsi ondoren, «Bake Prozesuaren aldeko erronka» dauka buruan igerilari tolosarrak



Ekzer-eskuin: Raul Castellino Miramarko alkatea, Roman Agirrezabal, Alberto Silva medikua, Peña bera eta Jesus Ramirez laguntzailea. HITZA

IÑIGO ASENSIO

Ez du atsedetik hartzen gizon honek. Argentinako urazal zabalena, Chiquita itsasoa, zeharkatu zuen joan den urrian, azaroaren 4an etxera itzuliz. Joandako azaroaren 25ean Sella ibaia jaisten ezarrita zuen errekorra hautsi zuen 2 ordu, 40 minutu eta 31 segundotan finkatuz. Chiquita itsasoa, Sella ibaia eta epe laburrerako buruan dituen abentura berriak aitzakiatzat hartuta Carlos Peña igerilari tolosarra balantzea egin du.

Hamaika lekutan igeri egingdakoa zara, Argentinan azkena. Zein berezitasun izan du?

Azkenean leku bakoitza oso berezia da. Zuk diozun bezala leku ugartan ibili naiz, munduko urazal zailen eta arriskuetsuenetan. Chiquita itsaso bortitza da, olatuek, haizeak eta gatzak oso gogorra egiten dute bertan igeri egitea. Igeri hasteko egunaren bezperan mediku gabe ginela jakinarazi ziguten. Bertako medikuek ez zuten parte hartu nahi, euren ustez

suizidio bat zelako. Cordobako kostazainek ez dute inor uretan sartzen uzten. Guk baimen berezia lortu genuen, baina ezin genuen medikurik gabe igeri egin.

Ez al zintuzten hainbeste arazoek beldurtu?

Ez. Banekien arriskutsua zela, baina ur arriskutsuetan igeri egiten daramat bizitza erdia. Aztertuta zegoen eta igeri egitera joan nintzen hara. Gero gauzak okertu daitezke noski, okertu izan dira besteetan, baina hor dago benetazko abentura, zalantza. Egoera guztietan egin dut igeri. Izotz-pusken artean Gray glaziarraren (Txile), muturreko bero eta hezetasunarekin Maracaibon (Venezuela), ur-laster eta harkaitzez beteriko ibaietan...

Gerrak hildako gorputzen artean Bosniatik Kroaziarako Neretva Ibaian...

Hori ere gogorra izan zen. Minak, gorputzak, hotza... Inguuru oso desberdinetan egin dut igeri. Pistinan ere 24 orduz, azken honetan gatz maila ikaragarriarekin, altuera handian Titikaka lakuan (Peru-Bolivia)... Egoera guztiek dute bere gogortasuna, egoera ezberdinak dira baina guztiak gogorrrak.

Beno eta Argentinara itzuliz, azkenean jarri zineten igerian, ezta?

Bai, hiru egunen ostean medi-



I.ASENSIO

ku bat iritsi zen Cordobako Euskal Etxearen bitartez eta bost ordutara martxan jarri ginen, goizeko bostetan.

Hiru egun, goizean goizetik irten eta iluntzeraino igerian.

Goizeko 05:00ak inguruan jartzen ginen martxan. Ordu erdiro jateko eta edateko egiten nuen geldialditxo bat, beti ere janarietan gatzik ez zegoela kontuan izanik, uretan zegoen gatz mordoia nahi gabe ere edaten nuelako.

Hainbestekoa al zen gatzak?

Ikaragarria zen! Neoprenozko jantziak zuri-zuri bukatzen zuen. Gorputz osoa irratiazioz bete izan nuen lehen egunetik. Urdailarentzako babesleak hartu nituen, bestela seguituan hasiko bainintzen botaka. Igerian maskara antzeko bat erabiltzen nuen gatzak gehiegi ez

sartzeko, nahiko gogorra egiten zen. Olatuekin, haizearekin eta lainoarekin askotan ez nuen Jesusen, nire laguntzailearen, piragua ikusten.

Merezi al du hainbeste sufrimenduk?

Baietz esango nuke. 30 bat traba oso gogor daramatzat nere bizitzan, gustukoak ditut, benetan aberasgarria egiten zait hau guztia. Zorte handia izan genuen, horrelako muturreko baldintzatan, erraza da saiakera bertan behera utzi beharra. Ziurrenik berriz saiatuko banintz ez nuke lortuko, oso gogorra izan da. Motibazio handia lortu behar da.

Eta Euskal Etxeen astea, zer moduzko esperientzia izan zen?

Hori ere bizi beharreko esperientzia da. Euskaldun bezala

ARGENTINAN

«Chiquita itsasoa bortitza da, olatuek, haizeak eta gatzak oso gogorra egiten dute bertan igeri egitea»

ARAZOAK

«Bertako medikuek ez zuten parte hartu nahi euren ustez suizidio bat zelako; ezin genuen horrela igeri egin»

ETORKIZUNA

«Herri Urratseko ekitaldien baitan Senpereko lakuan igerian aritzea da helburuetako bat»

oso berezia da Argentinan euskal musika, dantza eta giroan egotea. Euskal jatorriko 1.500 pertsona inguru bildu ginen. Ikaragarria da, esperientzia berri bikaina. Gainera Kepa Junkerarekin egoteko aukera izan nuen; oso gustuko dudana musikaria da. Haren kontzertuan izan ginen eta bikaina izan zen. Lehendakariaren errekonozimendua jaso nuen, baita igerilari argentinarren, kazetariaren edota Cordobako Unibertsitateko zoriortze emailak ere. Pozik nago, oso pozik.

Bertatik iritsi bezain azkar zeure errekorra hautsi zuen Sella ibaia jaisten; erritmo nekagarria, ezta?

Urtero egiten dudana jaitsiera da Sellakoa, errepikatzen dudana bakarra. Bertan beti egin digute harrera bikaina eta aurtengoan forma bikainean iritsita nire marka haustea lortu dut. Han etxean bezala aritzen naiz, nekea ez da arazo bat.

Nahiz eta azkenaldian atsedenean gabe aritu zaren, ba al duzu etorkizunerako planik?

Atsedenaldira txiki baten ostean berriz jarriko naiz martxan. Maiatzean Senpereko lakuan igerian aritzea da helburuetako bat, Herri Urratseko ekitaldien baitan. Ilusio handia egiten dit horrelako festa batean euskararen alde egitea. Badira proiektu gehiago, nazioartean ziurrenik datorren urtean, baina oraindik konfirmatzeke. Zaragozako Expo Unibertsaleko antolatzaileekin ere izan naiz hizketan han zerbait egiteko intentzioarekin. Ideia dezente ditut buruan, baina baliteke hurrena Bake Prozesuaren aldeko erronka izatea. Badut gogoa etxean aritzeko.

UROLA GARAICO
LANBIDE ESKOLAK
Filologian Lizentziaduna
behar du.
Batxilergoan klaseak emateko.
dlor.ugle@ugleskola.org
Tel.: 943725477

GIZARTEA ▶

Etorkinak euskalduntzen

Ereite elkarteak euskara ikasteko klaseak antolatu ditu larunbat goizetarako

ENERITZ MAIZ

Ereite elkarte kulturarantz joan den urteko irailean hasi zen, lehen aldiz eta dohainik, tolosaldean bizi diren etorkinentzat euskarazko klaseak eskaintzen. Ikastaro hauek, helduei nahiz haurrei zuzenduta daude.

Ikastaro hauen helburua euskararekiko lehen harremana bideratzea da, eta era berean, euskararen ezagutzarako lehen pausoak ematea eta erraztea. Hau posible izateko, hiru taldetan banatu dituzte taldeak. Helduak daude alde batetik, eta hauek inongo arazorik izan ez dezaten, zazpi urtetik beherako haurrak dituzten gurasoek, euren seme-alabak haurtzaindegi zerbitzuan utzi ditzakete. Bestetik, zazpi eta hamazazpi urte bitartekoak beste talde batean daude.

Tolosaldean bizi diren etorkinak, larunbat goizero bi orduz elkartzeko dira Tolosako Kultur Etxean. Pasa den urteko irailaren 16an hasi zuten ikasturtea eta abenduaren 16ra arte iraun zuen. Gabonetako oporren ostean, urtarrilaren 13an, hasi ziren berriz klaseak.

Herrialde eta jatorri ezberdinetako jendea biltzen da ikastaro hauetan. Helduen taldean hamasei ikasle daude eta hamabi lurralde ezberdin ordezkatzen dituzte: Errumania, Portugal, Brasil, Maroko, Kolonbia, Ukraina, Palestina, Nigeria, Venezuela, Errusia, Argentina eta Ekuador. Talde honen irakaslea Mirari Saizar berastegierra da eta hemezortzi urtetik hasi eta berrogei urte bitarteko langile eta gurasoak ditu.

Behar ezberdinak

Batzuk, lan munduan sartzeko beharrezko dutelako, beste batzuk, seme-alabek ikasketak euskaraz egiten dituztenez etxeko lanak egiten laguntzeko, eta denek ingurune berrirantz ahalik eta modu egoki eta errazenean gerturatu nahi dutelako joaten dira.

Lau hilabete hauetan, oinarri-oinarizkoak diren zenbait helburu komunikatibo landu dituzte: agurrak, aurkezpenak, ohiko elkarrizketa laburrak, instrukzio laburrak edota pertsona edota objektuen deskribapen laburrak.

Rita Calderonen esanetan «didaktari baino garrantzi handiago ematen diogu, belarrira egiteari. Oso ezberdina da,



Goian, klase egun batean. Behean, abenduko azken klase egunean egin zuten hamaiketako. HITZA

Gurasoak klasean eta txikiak jolasean

Emakume gehienek moduan, emakume etorkinek, bereziki zama oso astuna izaten dute hainbat ekintzetan parte hartzeko orduan baliabide gabezia dela eta. Honek, harremanak garatzea oztopa dezake eta baita ikastaroetan parte hartzea ere.

Desberdintasun egoera hau txikiagotzeko asmoarekin, proiektu honen barruan, euskarako klaseek irauten duten bitartean, haurtzaindegi zerbitzua izaten dute bertaraten diren gurasoek. Rita Calderonek adierazi digunez «ama asko geratzen zen etxean haurrak zaindu behar izaten zituztelako eta aurtun, aukera honenkin, euskara ikastera animatu dira; ez dute aitzakiarik izan». Aitziber Garmendia ibartarra da haurtzaindegi

zerbitzuan dauden sei haurren begiralea eta nola ez, euskaraz hitz egiten die. Jolasean, abestien eta ipuin bidez, ondo pasatzeaz gain, euskararen ezagutza jasotzen dute.



Haurrak begiralearekin jolastean. HITZA

Gurasoek euskara ikasten duten bitartean, txikiak ere, erraztasun handiagorekin barneratzen dute gure hizkuntza. Era berean, lagun berriak egiteko aukera izaten dute. ◀

euskara jakin ez arren entzuna izatea. Etorkinek ordea, ez dute inoiz entzun eta ez dakite ezer. Hori da dagoen ezberdintasuna. Gaztelaniaz ez dakitenak ere badaude, ondorioz irakaslearentzat ere ez da erraza klaseak prestatu eta aurrera eramatea». Gainera, etorkinentzako prestatuta dagoen materiala oso eskasa da.

Gazteen taldea Ane Illunbe ibartarraren esku dago eta sei ikasle ditu. Jolasean eta esku lanen bidez ikasten dute eta eramangarriago egiten zaie bi orduko klasea. Ikasle batzuk ikastetxetik gomendatuta joaten dira, laguntza moduan, euskara ikastera.

Euskal ohiturak ezagutzuz

Klaseez gain, Euskal Herrian zehar irteerak antolatzen dituzte euskal kultura eta geografia gertuagotik ezagutu ditzaten. Bestalde, etorkinen eta euskaldunen arteko hurbilpena bultzatu nahi izaten dute, elkar ezagutza erraztuz. Lehen lau hilabeteetan, Zugarramurdi, Azpeitia eta Artikutza bisitatu zituzten. Honez gain, azken klase egunean, hamaiketako eder bat egin zuten.

Abendua bitarteko klaseen balorazioa oso ona da. Ikastaro hasieran ezarritako lan erritmo eta garapena bete dituzte eta ikasleen parte-hartzea eta jarrera «oso onak» izan direla adierazi dute. Urtarriletik ekainera bitarte ere emaitza onak espero dituzte. Proiektua, Tolosako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarik gabe, ez zen posible izango aurrera eramatea. Euskaltegiak ordutegiak askorentzat, lana dela eta, ezinezkoak izaten dira eta Ereite elkarte kulturarantzaren proiektuari esker, hainbat etorkinek euskara ikasteko lehen pausoa eman dute Tolosan.



TOLOSA: 3 logela. Eraberrizteko. Hormigoizkoa. 31.000.000 pztla.
TOLOSA: Zumalakarregi. 90m2. 3 logela, 2 bainugela. Erabat berritua. Sukaldea jarrita. 65.000.000 pztla.
VILLABONA: Nagusia. Berritua. 32.000.000 pztla.
VILLABONA: Eraikuntza berrikoa. 49.900.000 pztla.
VILLABONA: Arroa. Erabat berritua. Bikaina.
VILLABONA: Arroa. Pisu altua. Berritua. Ganbara badu. 47.500.000 pztla.
VILLABONA: Berogailua eta igogailua baditu. 43.000.000 pztla.
VILLABONA: 3 logela. Erdi-berritua. 41.200.000 pztla.
VILLABONA: 2 logela. Hormigoiez eraikia. Terraza. 36.000.000 pztla.
ZIZURKIL: 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, trasteleku. Terraza ederra dauka. Igogailua. 41.500.000 pztla.

Errota 3 - Villabona
Olazinmo@euskalnet.net
943 243 118 - 635 706 728

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko urtarrilaren 21a, igandea ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **11** hotzena **8** BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Bailarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Leiza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zuzurkil
HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA **902 82 02 01**
 (balantzak argitzeko, harpidetuen egiteko...)

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Lizartza. Etzi, astearte, Garikoitz Etxeberriari Paben egingo dioten epaiketara joateko autobusa antolatuta dute. Goizeko 07:00etan irtengo da. Izen-ematea Tolosako Raku tabernan eta Lizartzako tabernan bertan egin dezakete interesatuek.
Tolosa. Bihar, Haur Liburutegian, 18:00etan, 3-10 urte bitarteko haurrentzat Hans Christian Andersen idazleak idatzitako ipuinak Dar-dar produkzioak taldearen eskutik.
Tolosa. Ero-Etxe elkarteak antolatuta, krosa izango da, 11:30ean hasita. Infantilen, kimuen eta haurren mailak ariko dira, emakume eta gizonezkoetan.

ZINEMA

Tolosa. Leidor aretoan, *Arthur y los minimois* filma ikusgai, 17:00etan; ondoren, 19:30ean eta 22:30ean *Holiday* filma.

ERAKUSKETAK

Tolosa. *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez* horma-irudien erakusketa dago ikusgai Aranburun otsailaren 24ra arte.
Tolosa. Maria Jose Rekalderen erakusketa dago ikusgai Aranburu Jauregian. 17:30etik 20:30era joan ahal izango da ikustera.
Alegia. Isabel Mujika margolariaren margolanak jubilatuen tabernan izango dira ikusgai, otsailaren 12ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
Lekunberri. Mendia, B. Aralar 25. 112. (Leitza eta Aresoko biztanleentzat).
Bihar
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52.112
Tolosa. Morant, R. Zabalzarreta, 1. 943 67 36 49.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Hitzak hegana* (errepikapena).

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Danbor soinuen beharrik ez

SAN SEBASTIAN EGUNA ▶ Orendainen eta Leaburun ohiko jai musikatuak egin dute, baina aurtengoan ez ohiko eguraldi atseginak lagunduta

NEREA URBIZU

Orendainen eta Leaburun atzo ospatu zuten San Sebastian Eguna: bietan ere txistuak leku garrantzitsua izan zuen, goizeko lainoarekin batera: dantzetan laguntzeko Leaburun, eta kalejira egiteko Orendainen.
 Iñaki Letamendia txistua eta danbolinarekin eta Juan Joxe Agirre kaxarekin Tolosatik igo ziren Orendainera, San Sebastian Egunaren inguruko ekitaldiak alaitzeko asmotan. Jada bigarren urtez joan dira, lehenago Alegiko German Intxausti baitzen han jotzen zuena. Joxe Inazio Eguzkitza apaiza etorri zenean plazan zeudenak ermita aldera jo zuten txistularien atzetik.
 Meza entzun zuten 80 bat lagunek San Sebastian elizaxokan eta ondoren herrira bueltatu ziren: ordurako, eguzkia lainoa menperatu zuen ia. Bidean etxe baten aurrean kanta bat jo zuten, Orendaingo emakume heldu batek ere entzun zezan.
 Udaletxeko hamaiketakoan ere txistuak alaitu zituen mahai inguruan zeudenak. Bazkaria ere izan zen, Eltxoak elkartean.
 Leaburun, berriz, arratsal-



Leaburuko dantzariak San Sebastian ermitaren aurrean. N. U.

dean San Sebastian basilizan elkartu ziren. Bertan, Leaburuko dantzari txiek dantzak egin zituzten, basilizaren kanpoaldean.

Berastegin, gaur

Berastegin ere urtero ospatzen dituzte sansebastianak era berezian, baina aurrean gaur ospatuko dute, beste urteetan baino era xumeagoan: 12:00etan gaur meza nagusian San Sebastian Eguna izango dute go-goan. Normalean basilizan ospatzen dute eguna, baina aurrean Berastegiko eliza nagusian izango da.



Orendainen txistularien atzetik joan zen jendea, bai basilizara eta bai udaletxe aldera ere. N. URBIZU

AGURRAK ▶

URTE ASKOAN Mikaela Zabala Goñi. Gaur 85 urte, zorionak familia guztiaren partetik.	URTE ASKOAN Lorena Elola (Tolosa). Gaur 6 urte. Zorionak eta muxuak Maddi eta familiaren partetik.
URTE ASKOAN Oihan Aranzadi Zabalza (Albiztur). Gaur 2 urte. Muxu potolo bat etxeokun partetik.	URTE ASKOAN Maria Karrera (Amezketeta). Zorionak amonaa matxeta! gaur izango deua kroketa gaonrik? 7 bilobak 7 muxu.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea
 Urtebetetzak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...